

Noaua!!



Igandean Sutegin,
puntako balet saioa



Imanol Agirretxe

“Jaitsiera postuetatik ateratzeko
aukera asko daude oraindik”



INMOBILIARIA
ORERETA

KALE NAGUSIA 10-ean GAUDE
USUREILDAR GUZTIEN
ZERBITZURA GURE TELEFONOA
943-367941 DIA, DETU EDO
ETORRI GURE BULEGORA INONGO
KONFIRMISORIK GABE

Kale Nagusia 10 Beheo
Tel: 943 367 941 - Fax: 943 367 941
inmoobiliaria@telefonica.net

euskarak
behar gaitu!

æk
heldu

izan zaitez
korrika
laguntzailea

12 gutunak
truke

www.karibu.org

**Berogailuetarako
gasoil zerbitzua**
prezio onenean



Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Ekartea



**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz: 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

Herriko kooperatiba (Herriko) • Kooperatibak • Agurri kooperatiba • 1983 • 1983 • 1983

Albisteak iruditan !!

3.109,65 euro, zenbaki magikoa

Ez da hauteskunde egun batean aterako erretratua. Ez dira botoak zenbatzen ari. Hurbilagoko kideak dira irudian azaltzen direnak. Dendari eta tabernari elkarteak gabonetan antolatu zuen lehiketak arrakasta handia izan zuen. Bordaberri kalean ipini zuten eskaparatearen prezio zuzena asmatu beharra zegoen eta partehartzea izugarria izan zen. Ehundaka paper zabaldu behar izan zituzten Hurbilagoko kideek. Argazkia begiratzeari ez dago. 3.109,65 euroko balioa zuen eskaparatean bildutakoak. Joseba Portularrumek 3.109,60ko prezioa bota zuen eta bost xentimora geratu bazen ere, berarentzat izan zen saria. Zorionak!



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

BIARRITZEKO BALET GAZTEA _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

KOSTATA, BAINA IRITSI DA NEGUA _____ **8. OR.**

EUSKARA PLANAK ENPRESETAN _____ **10. OR.**

IMANOL AGIRRETXEREKIN SOLASEAN _____ **12. OR.**

DANBOR FESTA UDARREGIN _____ **13. OR.**

BI DOMINA JUDO TALDEARENTZAT _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala




Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Txorimaloa

Zergatik gertatzen den ez dakit oso ondo, baina aurpegi ezagunik topatzen badut egunkarian irrifarre bat irudikatzen zait masailean, "hara!" esanez bezala. Hau noski, argazkian agertzen dena gustukoa denean gertatzen da soilik. Gustukoa ez denean kolpetik pasatzen dut egunkariko orri motela.

Pasa den asteko astelehenean, prentsa eskainiz jo zuen atea emakume barek ospitaleko gelan eta, hala nola, jeiki eta gustuko aurpegiak ikusteko esperantzaz erosi nuen gustuko egunkaria.

Osakidetzaren anagrama neraman kamisoi urdin jantzi berrian, SG neurrikoa, nahikoa lan eman zidan ohe ondoko aulkian esertzeko garaian.

Zabaldu nuen, nola edo hala, egunkaria ohe gainean eta bai gustura, gustuko aurpegiak gustura gustuko egunkariko argazkietan ikustean... Ezagunak, aixkiriak, ama, laborekoak, ikasle ohiak, ahizpak, lagun kuttuna, bizilagunak, zaldiak, iloba, behorak, idiak, baserritarak, Kuarentaidoskoak, Lasartekoak, Urnietakoak... zer zen hori!

Aurreko egunean, igandean, pare bat alditan hitz egin nuen telefonoz manifestaldian martxan zen bitartean, bertan

gertatzen ari zenaren berri jakin nahian; "kriston jende pilla, bukaera aldean gaude eta manifestazioaren hasiera ez degu ikusten". Deskribatu zidan lagunak hitz bitan.

Bazkalostean, Teleberria ikusteko desioa azaldu nion aldameneko oheko lagunari, Luisari. Euroz kargaturik zegoen ordurako telebista azpiko kutxa beltza, Osakidetzan telebista ikustea kosta egiten baita. "Milaka lagun bildu dira gaur eguerdian Usurbilen Zubietan eraiki nahi den erraustegiaren aurka..."

Hurrengo egunean azaldu ziren, ordea, gustuko jendearen aurpegiak prentsan. Manifestaldiaren luzea, jendearen emana. Ohetik jeiki nintzen baldar eta Luisaren ohe alboan jarrita argazkietako gustuko ezagunak aurkeztu nizkion behatzarekin seinalatuaz.

-¿Quién es éste?

Galdetu zidan Luisak alkatea irudikatzen zuen txorimaloa behatzarekin zanpatuaz.

- Pueesss...

Ez nion aurkezpenik egin.

Oharra: hobeto izango delakoan goraintziak Luisari.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

Manifestazio jendetsua

Ezin ukatu orain dela egun batzuk herrian izan genuen errausketaren aurkako manifestazioa jendetsua izan zela. Herrian izan dugun jendetsuena. Inguruko herrietatik pertsona eta politiko ugari gerturatu zitzaizkigun, eta horiekin batera herritar kopuru garrantzitsua.

Askok, errekupegarriak ez diren hiri hondakinak erretzeko sistemak egokiak ez direla sinisturik parte hartu zuten, beste askok errausgailua Zubietan nahi ez dutelako, biak zilegitasun guztiarekin. Eta hori egia den bezala, beste askok minduta parte hartu zuten, Alkatearen, bere pertsonaren umillazio publiko eta kolektibo batean parte hartzen obligatzen ari zitzaielako, Erdi Aroko egun ilunak

gaurkotuz. Nere pertsona irudikatzen zuen panpina bat zintzilikaturik manifestazioaren aurrean ibiltzea Erdi Aroko umillazio publiko eta kolektiboak gogora arazi dizkit.

Azken egun hauetan batzuk eta besteak iritziak plazaratu dituzte Udal Batzarretan gertatutakoaz, Alkatea eta Udal Korporazioaren erabakietaz. Iritziak bai, baina informazio gutxi. Komunikabideak baditugu herrian oihartzuna dutenak eta ez ditugu informatzen ikusi. Esanez, adibidez, udal talde bakoitzak zer adierazi zuen azken Udal Batzarrean; esanez, adibidez, hitz egin nahi izan zuen herritar guztiek hitz egiteko aukera izan zutela, eta ez zutela inolako mugarik izan.

Eta nahaste-borraste honetan fun-

tszekoena ahazten dugu: errausgailua Zubietan jartzea Donostiako Alkateak proposatu duela!, ez usurbildarrak, donostiarrak baizik!

Askori baieztapen hauek ihes egiteko era erraz bat irudituko zaie. Baina ez da horrela, dato objetibo eta erreala da. Odon Elorza jaunak proposatu du Zubietan jartzea, Artzabaleta gainean izatea.

Bukatzeko berretsi azken planoan adierazi nuen konpromezu publikoa: udalak neurri administratibo eta juridiko guztiak jorratuko dituela Donostiako gobernuak proposatu duen errausgailuaren kokapena gauzatu ez dadin.

Luisuari Ormaetxea.
Usurbilgo Alkatea.

Igandean, Biarritzeko Balet Gaztea Sutegin

Biarritzeko Baletak Ballet Biarritz Junior (BBJ) gazteen taldea sortu zuen 2005eko udan. Ordutik dantzari gazteen harrobia sortu eta hainbat emanaldi eskaini dituzte. Horrelako ikuskizunera hurbiltzeko aukera gutxi egongo da Usurbilen; bakarra, agian. Urtarrilaren 28an, iluntzeko 19:30etan Sutegin. Sarrerak: aldeztur 8 euro kiroldegian; takilan, 10 eurotan.

Hirurogei minutu oholatza gainean izango den ezohiko ikuskizun batez gozatzeko. Denbora tarte horretan, dantza eta musika uztartuko dituen balet saioa eskainiko du Ballet Biarritz Junior (BBJ) taldeak Sutegiko auditorioan. Iluntzeko 19:30etan hamar dantzari trebeek oholatza gaine-

Azken hiru mendeetan dantzak izandako garai onenen ikuspegi berri bat islatuko dute kultur etxean. Hala, Mozart, Holborne edota Tchaïkovski musikariek zehaztutako pausoen haririk mugituko dira hemezortzi eta hogei urte artean dituzten balet dantzari gazteak. Sei piezaz osatutako ordubeteko emanaldia izango da datorren igandean, urtarrilak 28, kultur etxeko auditorioan Filgi Claveriek zuzenduta eskainiko dutena.

Taldeari sei hilabeteko bizitza eman arren, urtea aspaldi bete ostean emanaldiak eskaintzen jarraitzen dute. Izan duten arrakastaren seinale. Ballet Biarritz Junior taldeak etorkizuneko dantzarien harrobi bilakatu zen hamar gazterentzat. Haien ametsak betetzeko aukera Biarritzeko Baletak eskaini zien. Donostiako Egia Kultur Etxea bihurtu zen haien biltoki. Haien ahaleginen gune eta haien etorkizunaren txoko.



ARRATSALDEKO 19:30EAN HASIKO DA DANTZA SAIOA.

baino gehiago aurkeztu ostean, Donostia, Baiona, Bartzelona, Madril edota Frantzia jaioterria duten hamar bat dantzari gazte hautatu zituzten.

Hainbat erakundek burututako lankidetzaren ondorioz jarri zen abian proiektua; Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Euro-Hiria, Donostia Kultura eta Akitania-Euskadi Lankidetzaren Fondoaren elkarlanaren ondorioz.

ARITZ GORRITI

BIARRITZEKO BALET GAZTEA

“Sei ekitaldiz osatutako saioa izango da Sutegin eskainiko dutena. Guztira, ordubeteko saioa izango da”

ra igo eta ahal duten guztia emateko prest izango dira.

Lankidetzan osatutako dantza konpainia gaztea

Konpainia bateko kide izatea ez da gauza erraza. Horren lekuko, dantzari askoren ametsa egi bihurtzeko gaitasuna behar dituzten frogak. Aukeraketa prozesura inguru ezberdinetatik animatutako berrogeita hamar gazte

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozategin

LABE-GOXO

LATAILLADE **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak

TABERNA

teilatuak eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 - ASTEASU
© 943 69 68 52 - 620 800 186

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Udaberria?



Zuhaitzak hostoz beteta, belardiak inoiz baino berdeago, birigarroak kortejatzen hasiak, badirudi gure “ongizate estatuaren” tamainako eguraldia bidali digula gure jainkoak.

Arrarotasunari begira eta zalantzazko normalitate hontaz gozatuz gustora gabilta animalioak, tabernetako terrazak beteaz eta udazkenean erosi eta oraindik estrenatzeko genuen kamiseta berria erakutsiz. Baina zerbait datorrenaren susmoz atzera begira jarrita.

Ba hemen deu, negua, hotza eta elurra. Madrilen jotako trumoiak badirudi ohartarazi gaituela, ze urtarotan gauden, jasaten genituen temperatura epelak eta birigarro kantuak ez zirela erre-alak. Behin eta berriz estaltzen saiatutako pintadak ez dutela udaberriaren zurtasuna erakusten, atzean duten negua baizik.

Jakina da, nahiz eta batzuk horrela ez nahi, negu hau pasako badugu, denok jarri behar dugula lanean, batzuk egurra pilatuz, besteak janaria, beste batzuk alferrikako “krematorio”, kartzela eta obra miresgarriak hankaz gora boteaz, eta nola ez, guztiak ze urtarotan gauden jabetuaz.

Beno ba, badakizue, txorrotxioka dabilzan birigarroak ixildu, kamiseta berriaren gaintetik jertxe zaharra jantzi eta presta gaitzen negua igarotzeko, ze urruti jotako trumoiak elurra botako du eta...

KALEBERRI

IRATI PORTU

Haizea hartzera!



Duela ez asko Bushek beroketa globala benetan existitzen dela onartu du, baina hala ere ez omen dago prest Kiotoko protokoloan parte hartzeko. Eta honen aurrean gehienok pentsatzen duguna: A ze astakeriak egiten dituzten Estatu Batuar hauek, nola ote daukate presidente burugabe hori!

Hilaren 14an herrian milaka pertsona bildu ginen argi daukaguna aldarrikatzeko: Ez dugu erraustegirik nahi, ez Zubietan ez inon!

Egun berean alkateak idatziriko iritzi artikulua bat irakurri nuen: inork bere etxe azpian taberna edo tailer bat nahi ez duen moduan honelako instalazio industrial bat ez duela nahi zioen. Hara! Gure kapritxo bat izango da orduan dena. Honen aurrean igandean irakurritako hitzak etorri zitzaizkidan burura... ez hartu herritarrak inozotzat! Taberna edo tailer bat? Mota askotako minbiziak (urdail, gibel, birika eta bularrekoak, leuzemia infantilak...), malformazio heredagarriak, alterazio hormonalak (batez ere haurrengan), arnas aparatuko arazo larriak eta orokorrean heriotza tasaren haztea...

Oso serio ari gara. Ez daukat lerdokeria gehiago entzuteko gogorik, inork ez du eskubiderik gu horrela pozointzeko, erabaki honek denoi eragingo digu gure borondatearen kontra.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Erraustegirik ez!

Kaixo guztioi. Ale honetan idaztea ongi datorkit urtarrilaren 14ko manifestazioaren berri eman nahi bainuke. Egia da begi guztiek ez dutela berdin eta berdina ikusten, baina lotsagarriak iruditu zitzaizkidan ETB-k bere albistegietan eman zituen irudiak.



Hasteko, gustura nago Manifestazioak izan zuen oihartzuna ikusi ondoren, izan ere sekulako jende pila bildu baitzen Erraustegiaren aurka. Manifestazioak herrigune guztia hartu zuen eta hori hain zuzen ez genuen albistegi horietan ikusi. Argi dago batzuek ez dutela gure iritzi berbera.

ETB-k berri hau ez zuen haseran eman, erdialdean eman zuen eta gainera bi irudi eskas. Bertan ezin ikusi zitekeen hemen bildu zen jende pila eta izan zuen arrakasta ere. Irudi horiek guk nahi dugun errealitate hori ez zuten azaldu eta lotsagarria iruditu zitzaidan. Ondorio gisa, argi dago komunikabideek ez zutela erakutsi herriak nahi duena.

Bestalde, beste kontu txiki bat azalduko dizuet. Urtero bezala, aurten ere, kalezarreko elkarteko batzorde berria eratu zen urtarrilaren 6an egin zen bilkuran.

Besterik gabe, agur bero bat guztiontzat eta hurrengora arte.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Donostia eguna auzoan

Sebastian bat bada zeruan Donostia bakarra munduan hura da Santua ta hau herria

Atxegalde auzoko Mahaspildegia soziedadeko kideek urtero bezala parranda ederra bota zuten San Sebastian bezperan. Arratsalde guztia afarirako prestaketak egiten jardun zuten kideek dena prest eta puntu puntuatzen egon zedin gauerako. Batzuek mahaia txukun eta dotore prestatu jaiak merezi du eta; klabin txuri eta urdinez dotore dotore ezarri, besteak afaldu osteko “discoteca”, altabozak, musika aukeraketa eta benetan garrantzia ematen diogunari guztiok; afariarako menua ezin hobea izatea. Partaide guztiek tripa beteta eta pozik joan daitezten etxera. Urteak dira Atxegalde auzoan San Sebastian bezpera ospatzen dela eta ez pentsa Donostiako jai giroari bate inbidiarik dionik. Gure auzotarrek goizen goiz erretiratzeko baitira gosalduta ostan.

Afaltzera joaten diren guztiek primeran pasatzen dute gau guztian danborra joaz eta dantzaz eguzki izpiek eguna hasi dela adierazi arte. Auzoko batek baino gehiagok igande galanta edukiko zuen baina hurrengo urteko afaria berriz prestatzeko desiatzen. Ohitura hauek ez dira galdu behar eta ea orain bezalaxe urte askotan horrelako afari eder eta zoragarriak prestatzen jarraitzen duzun. Zorionak guztioi! Hurrengo urtera arte.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Iritsi zaigu negua



Zer iruditzen zaizue txankletak eta galtza motzak jantzita sagardotegi batean afaltzea? Ederra ezta, polarra utzi eta manga motzean ibili kupela gora kupela behera. Ba orainarte izan dugun neguarekin ez zen harritzekoa izango horrela ibiltzea.

Zorionez eta kostata bada ere, azkenean iritsi zaigu negua guri ere. Aldaketa klimatikoa, planetaren beste ziklo bat, gure eraginaren ondorioa... Ukatu ezin dena, negua ez dela negu eta uda ez dela uda. Martxa honetan udaberria eta udazkena desagertuko dira, dagoeneko ia desagertuak daudelarik.

Harrigarria litzateke, udaberria iritsi eta auzoan dauden iturrietatik ura ez ateratzea Andatza gainean izanik. Ea gure negu berezi honek bere lanak egiten dituen datozen sasoietan arazorik izan ez dezagun.

Bestalde, pozik egongo direnak aspaldiko partez, gure eskiatzaileak izango dira. Kosta zaio iristea baina azkenean bada elurraz gozatzeko aukera. Kabituko ote dira datozen astebukaeratan zaletu guztiak pistatan?

Beraz, atera eskiak, jantzi botak eta polarra eta disfrutatut neguaz, eskiatzen, txotx egiten edo eta etxean goxo-goxo egoten.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Eurria hemen da



Iada ohikoa den bezala, ez zait erraza suertatzen oraingoan ere ordenagailuaren aurrean jarri eta hemen gertatzen denaren berri ematea. Egunez gain, ez da askorik igarotzen gurean; gauzek bere horretan dira.

Aurtengo neguan izaten ari garen eguraldia dela eta jende askok aprobetxatu ohi du kirola egiteko aukera. Bizikletaz, oinez eta korrika ere gure aldapetan barrena ibili direnak badira. Gabon egunetan jandako turroiak eta edandako ardo eta txanpaina botatzeko aukera ezin hobea eskaini digute igaro diren udaberri giroko egun horiek. Horrelako negu bero eta lehorrik ez omen dela urte hauetan ezagutu diote batzuek eta zientzialariek dionetaren arabera, aldaketa klimatikoaren ateetan aurkitzen omen gara. Hala izan edo ez, euri falta somatzen hasia zegoen dagoeneko eta aste honetako eguraldia batzuen gustokoa izan ez bada ere, inguruetako belardi, baratz eta landareak ez ziren kexu agertuko azken egunetako negu giroko egunez.

Bestalde, urte berriaren etorrerarekin batera eta behin San-Sebastian eguna igarota, sagardotegi giroan sartuak gaude betebetan. Beraz, giro hau atsegin duenak badu gozatzeko aukera!

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Ikastaroak aukeran



Agina alde hontan, azken aldian ez dugu Anobedade handirik. Nobedade handiena, orain gutxi sortu den herri elkarte dugu. Aginagako kultur eta herri elkarte honek, hainbat ekintza burutzeko aukera luzatu digu; bai ikasteko, hezitzeko, nahiz erlaxatzeko ere.

Besteak beste, elkarte honek ondorengo ikastaroak luzatu dizkigu, gazte eta helduei:

Argazki digitalen ikastaroa: gazte eta helduei zuzendurikoa izango da, gure argazkiei duten zukurik onena ateratzeko.

Euskal dantza ikastaroa: herriko kaleetan dantzan aritzeko. Ikastaro hau ere gazte eta helduei zuzendurikoa izango da.

Yoga ikastaroa: hau dagoeneko aurreko urtetik martxan dagoen ikastaroa da.

Informatika ikastaroa: honako hau ordenagailu baten erabileraren menperatzeko ikastaroa izango da.

Ikastaro hauez gain, etxeko txikienentzako ere hainbat ikastaro luzatu ditu; irudimena lantzeko eskulan tailerrak izango dituzte. Honez gain, psikomotrizitate tailerrak ere izango dituzte. Baita animazio tailerrak ere luzatuko dituzte eta urritik martxan dagoen ludotekak ere martxan jarraituko du.

Nik hemendik, aginagatar guztioi ikastaro hauetara animatzera gonbidatzen zaituztet.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Sinusoidala



Uhin sinusoidalak goia jo ondoren beheka jotzen du, berriz gora eta berriz beheka, beti gora eta beheka. Nire aldarreak ere sinusoidal dirudi, gora eta beheka baitabil, erraustegiaren inguruko berrien menpe.

Bake prozesua abiatu zenean, udaletako indar-korrelazioak aldatuko zirelakoan, eutsi goiari! nioen, agintari berriek erraustegia alboratuko zutelakoan. T-4ko atentatuarekin eta Artzabaletako kokagunearen aukeraketa-rekin, beheka prozesua, beheka itxaropena eta lur jota neure aldarrea. Usurbilgo manifestazio jendetsuarekin, gora bihotzak!, berriz ere. Hurrengo foru diputatu nagusi izango den Jon Jauregiren erraustegiaren aldeko adierazpenekin, berriz beheka...

Hilaren 30ean Donostiako udaletxean erabaki behar omen dute erraustegiaren kontua. Uhin sinusoidalari jarraiki, gorako bidea behar luke nire aldarreak; ea zentzu-izpiren batek argitzen dituen politikariak eta behingoagatik berri onik ematen diguten. Eta, bestela, aldarrea bestelako kontuekin goxatu behar: Santa Ageda kantak, erraustegiaren kontra aurki egingo den bertso-afaria...

Kostata, baina iritsi da negua

Aspaldi erakutsi gabeko aurpegia ikusi diogu eguraldia-ri azken asteetan. Negu beteko giroa etorri zaigunean, normala behar lukeena garai hauetan, “ezohiko” albiste bihurtzeraino. Utzi du ondoriorik gure inguruetan. Atzeratu egin da neguko arropa eta bestelako materialen salmenta. Nekazal inguruek ere uztan gorabeherak izan dituzte. Amirigoian eta Igartzazabalen aste hauek nola bizi izan dituzten jaso dugu NOAUA!k.

“Cyrill” izena jarri diote Europako hainbat herrialde gogor astindu dituen haizete eta euriteei. 30etik gora hildako eragin ditu aspaldi ezagutu gabeko urakanak. Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldean, azken hamarkadetako elurte eta izozterik gogorrenak pairatzen ari dira. Australian, aspaldi ezagutu gabeko uholdeak. Eta gure ingururik hurbilean zer? Egutegiak ofizialki negua duela hilabete hasi zela seinalatzen du. Baina garai honetakoak diren elurte eta hotzaldiaren arrastorik ez. Eskiatu ezinik, urtegi asko behar baino hutsago, hego haizea...

“Eguraldia oso nahasia dago”, adierazi du Tomax Imazek, Amirigoikoak. Eta eguraldiak uztekin beste hainbeste egiten du; nahastu. Ondorioak nabarmenak dira. Garaikoak ez diren landareak loretan ikustea adibideetako bat da. “Lehen loreak saldu ditugu bulboekin; fresiak eta narzisoak izaten dira martxoko loreak eta jada saldu ditugu”, adierazi du Arantxa Eizagirre Amirigoikoak.

Garaian garaikoa egin zuen azken



LEHENGO ASTEAN, AMIRIGOIAN LORETAN ZITUZTEN HAINBAT LANDARE. EZOHIKO NEGU HONEK UTZI DIGUN ARRASTOETAKO BAT IZAN DA.

alditik ez da hainbeste denbora igaro. Ez da duela urte askotako kontua. Eizagirrek gogoratzen duenez, “duela hiruzpalau urteko urtaroak oso markatuak izan ziren”. Eta urte hartako uztak ere, oso onak izan ziren.

Zeren eraginez ote duen eguraldiak duen izaera asmatzea ez da erraza. Aditu batzuen ustez, aldaketa klimatikoaren aurrean gaude; beste batzuen iritziz, ziklikoak diren fenomeno batzuen eraginpean. Herritarrek dituzten iritzietan islatzen dira gertakera horiek interpretatzeko bi moduak. “Aldaketa klimatikoan izan daitekeela sinesten dut. Hainbeste poluzio, ke eta zikinkeria botatzen dugu inguru hauetara”, adierazi du Imazek.

Igartzazabaleko Santos Jauregik lehen ere horrelakorik gertatu zela gogoratzen du; “duela 53 bat urte”.

Ardiak,

eguraldi txarraren iragarle

Aste hasieran Euskal Herria fronte hotz baten pean esnatuko zela zioten iragarpenek. Tenperatura jaitsiera nabarmenak eta urtaro honi dago-kion lehen elurteak behe xamarrean ikusteko moduan izango ginela. Hori meteorologia zerbitzuek ziotena. Animaliek, ordea, horrelako aldaketa nabarmenak ere iragar ditzakete. “Haiek ulertzea da kontua”, adierazi du Santos Jauregik. “Eguraldi txarra

J. ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1. EBK 943372937 • 659602789

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

datorrenean, ardiei nabari zaie”, gaineratu du Igartzazabalekoak. Bi modutan; ardi asko elkar joka hasten dira eta ohikoa baino denbora gehiago igarotzen dute larrean.

Bera elkarrizketatutako egunean horrelako mugimendu berezirik behintzat ez zen sumatzen. Baina erasoaldia goiz edo berandu etorriko zela iragarri zuen. Hain zuzen, beste urte batzuek baino lehorragoa joan badaiteke ere, larritzeko arrazoirik ez dugu elkarrizketatuen esanetan. Behar adina euri egingo duela espero dute. “Espero dut, Euskal Herria beti bezala salbatuko dela, nahiz eta Aralarko mendiak adibidez, nahiko lehor izan diren azken urteetan”, adierazi du Imazek. Iritzi berekoa da Santos ere. Bustitik eta batez ere, hotzetik joango zaizkigu datozen asteak. “Hurrengo hila txarra egingo du. Izotz asko egingo du”, iragarri du Igartzazabalekoak.

Abenduan izan ziren neguko tenporek ere iragarria zuten orain artean izan dugun eguraldi goxoa; aurreikusia zuten baita, hemendik aurrerako txarraldia ere. Horietan sinestea edo halakorik ez egitea norbere esku dagoen arren, Jauregiren hitzetan, “zerbaitegatik jarriak daude. Eta asmatzen dute”. Horiek betetzen badira, negu itxura hartuko dute datozen egun eta asteek.



ARDIAK, EGURALDI IRAGARLE. SANTOS JAUREGIREN ESANETAN, “EGURALDI TXARRA DATORRENEAN, ELKAR JOKA HASTEN DIRA ETA DENBORA GEHIAGO IGAROTZEN DUTE LARREAN”.

ARITZ GORRITI

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80

Heapaindegia eta Solarium-a
Ioli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B @ 943 361 971

Industri eta iragarki
SEBIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
USALDEA POL.36-2-USBIL

Knk l
-I. ntz r
Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
-Fix r k h r
luzun k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7

I n t n n -z r m u n l k
BEMARAOA
BEMINIK MAIOR...
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1



Buruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko ahalegina

Buruntzaldeko udalek, hots, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil, lan munduan euskara sustatzeko egitasmoa jarri zuten abian 2004-2005 ikasturtean eta 2005-2006 ikasturtean egitasmoarekin jarraitu dute. Bi ikasturteetan EMUN izan da egitasmo hori aurrera eramane duen enpresa aholkularia. Aurten hirugarrengoz jarraian, egitasmoarekin jarraituko dute eta zertan diharduten azaldu dute euskara batzordeetako eta EMUNeko ordezkariak Hizkuntza Politikarako Sailburuordearekin batera.

Badira bederatzi urte Buruntzaldeko euskara zerbitzuek elkarren artean koordinatzen hasi zirela euskarako egitasmo batzuk elkarrekin lantzeko. Elkarlan hau 2.002an formalizatu zen Buruntzaldeko sei udalen artean hitzarmena sinatu zenean.

Geroztik, atal desberdinetako egitasmoak lantzen ari dira elkarrekin: familia, irakaskuntza, merkataritza, kirola, aisialdia, etab. une honetan orotara hogeita bost programa dituztelarik eskuartean.

Ildo horretatik, duela bi urte, enpresak euskalduntzeari heldu zioten eta Buruntzaldeko enpresen balio erantsia gehitzeko, enpresa horien zerbitzua hobetzeko eta bezeroen eta langileen gogobetetzea handitzeko, besteak beste, EMUN aholkularitza enpresarekin ari dira elkarlanean produktu bat eskaini eta ahalik eta enpresa gehienek Euskara Plana abian jartzeko helburuarekin.

Une honetan, hamar enpresa ari dira Buruntzaldean normalizazio planak bideratzen: Aduriz Lasarte-Oria, Mondragon Sistemas de Informacion eta Latz Kooperatiba Andoainen, Orona, Perfiles Selak eta Hator Aholkularitza Hernanin, Fagor-Luzuriaga, S. Izaguirre eta Fagor Automation Usurbil-Berriola Usurbilen eta Tximela Astigarragan.

Udalek diruz laguntzen dituzte enpresa hauek euskara planak diseinatu eta garatzeko. Diru laguntza hauek Eusko



ENPRESA MUNDUAN EUSKARA SUSTATZEKO EGITASMOA AURKEZTU ZEN ANDOAINGO UDALAN, URTARRILAREN 16AN.

Jaurilaritzatik jasotzen dutenaren osagarri dira.

Bi atal nagusi

Horretarako eta apirilaren 30a bitartean bi atal nagusitan lan egingo dute: Batetik, Komunikazio Plana. Euskara planak zer diren eta zertarako balio duten argitu nahi diete Buruntzaldeko biztanleei, Buruntzaldeko enpresetako arduradunei eta Buruntzaldeko enpresetako ordezkari sindikalei. Ahalegin horren baitan besteak beste honako ekintza hauek egingo dituzte: prentsaurrekoa, erreportajeak, triptikoak, enpresetara gutunak, buletin elektronikoak, www.emun.com/buruntzaldea, hitzarmenen sinatze ekitaldia, etab.

Bestetik, Buruntzaldeko 24 enpresa bisitatuko dituzte apirilaren 30aren aurretik. Enpresa horietako arduradunek eta langileek aurrez aurre jasoko dute egitasmoaren berri: euskara planak zer diren, euskara planen bidez enpresek lortu ditzaketan onurak zeintzuk diren, euskara planak diseinatzeko eta inplementatzeko metodologia eta teknikak... Eta hala nahi izanez gero, baita euren enpresetan euskara plana abian jartzeko

proposamen metodologikoa eta ekonomikoa ere helaraziko zaie.

Udalak, sindikatuak eta Eusko Jaurilaritza elkarlanean

Egitasmoa behar bezala garatzeko herri bakoitzeko euskara teknikarien harremana etengabekoa izango da eta horiekiko koordinazioaz gain, Buruntzaldeko Jarraipen Batzordea abian dute. Jarraipen Batzordean euskara teknikariek gain, lau sindikatu nagusietako ordezkariak -LAB, ELA, CC.OO eta UGT- lanbide heziketa zentroetako ordezkariak eta arduradun politikoak ere parte hartzen dute.

Aurreko urteetan egindako lana ebaluatu ondoren, etengabe euskara planen sustapena nola egin hobetzen ari dira. Aurten hainbat berrikuntza eta hobekuntza izango dituzte eta horietako bat, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak martxan duen LanHitze egitasmoarekin elkarlanean aritzea izango da. EAEn abian den LanHitzek, indartu egingo du Buruntzaldeko egitasmo hau eta horrek eta gainerako hobekuntzek goiz edo berandu emango dituzte fruituak.



Inkesta

1. Zergatik hartu zenuten Euskara Normalizatzeko Planean hasteko erabakia?
2. Zenbat denbora daramazue?
3. Zein onura ekarri dizkio zuen enpresari?



Agustin Aduriz
Aduriz de Lasarte SA

1. Hasiera batean gure arteko euskal giroa bultzatzeko aproposa iruditu zitzaigun. Egia esateko guk ez genuen plan honen berri, baina Udaletik informazioa heldu eta une horretan ideia ona iruditu zitzaigun, batez ere gure artean euskaraz gehiago egiteko, gehienok euskaldunak gara eta.

2. Izango dira pare bat urte gaiarekin bueltaka gabiltzala, baina iazko udaberrian hasi ginen serio euskara plana martxan jartzen. Abiapuntua EMUNeko teknikariekin eginiko diagnosis izan zen, maiatzan urtea beteko da.

3. Oraindik gutxi daramagu eta onurak nabaritzeko azkar da, dena den nik sumatzen dut kontzientziak pizteko balio izan digula eta iruditzen zait gure artean euskara gehiago erabiltzeko giroa jadanik lortu dugula. Iruditzen zait bertako enpresa izaki prestigioa ematen duela bai gure artean euskaraz egiteak, bai euskaraz zerbitzua eman ahal izateak ere. Gainera bezeroei zerbitzu hobea emateko denez gure produktuei beste balioa eman diegu.



Victorio Luzuriaga
Usurbil, SA

1. Zuzendaritzarengandik etorri zen honelako plan bat martxan jartzearen ideia, nahiz eta, noski, hori ez da egiten enpresa osatzen duten pertsona guztien iritzi eta interesak ezagutu gabe eta kontuan hartu gabe. Gure kasuan, bi kolektiboren eragina egon da euskara plan bat jartzeko jatorrian, batetik Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A., bertako langileen iritzi eta gogoak eta baita ere datorren urteetan langile izango direnenak ere, eta beste aldetik, Fagor Ederlan kooperatibaren eragina, gure enpresa hango parte baita.

2. 2005 urtean hasi ginen. 2006 urtean praktikara eramaten hasi gara diseinatutako plana.

3. Euskararen ezagutza aurreratu dugun sentsazioa dugu; batez ere gure enpresa barruko eta kanpoko paisaia euskalduntzean aurreratu dugu, oraindik bide luzea dugula egiteko jakin arren. Gure asmoa, sinple esanda, lan munduko euskararen normalizazioari gure ekarpentxoia egitea da.




Gotzon Bontigui
S. Izaguirre, SA

1. Gure enpresa euskal ingurune batean kokatua dagoela kontuan eduki dugu erabakia hartzerako garaian. Bai gure enpresa barruan bai gure ingurunean, euskararen erabilera ohikoa dela jakinik bere erabilpena "normalizatzea" egokia izango litzatekeela pentsatu genuen eta euskara plan bat abian jartzea erabaki genuen.

2. S. Izaguirre enpresan 2005eko uda hasieran hasi ginen euskara planarekin, beraz, urte eta erdi daramagu.

3. Lehenengo emaitza gisa, barne dokumentazioaren zati bat euskaratu dugu eta eguneroko lanean euskara modu "normalizatu" batean erabiltzen dugula aipatu nahi dugu. Horrez gain, proiektu honek gure artean sortu duen lan giro polita azpimarratzea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu.



- Nahi al duzu zure enpresan euskara gehiago erabiltzea?
- Ikusten duzu aukeraren bat horretarako?
- Badakizu gero eta enpresa gehiagotan jarri dituztela abian euskara planak?
- Nahi al duzu euskara planen inguruko informazioa jaso?
- Badakizu euskara plan batek zure gogo hori betetzen lagunduko dizula (bai dirutan eta bai egiteko moduetan)?

Nahi baduzu,
deitu telefono
hauetako batera:

EMUN
Urtzi Axpe
943 30 09 78

Hernaniko Udala
Malores Etxeberria
943 33 70 29

Lasarteko Udala
Marifer Gorostiza
943 37 61 84

Imanol Agirretxe, Real B taldeko jokalaria

"Niretzat igandekoa derbi normal bat izango da"

Real B taldeko jokalaria izanik ere, denboraldi honetan hainbat partida jokatu ditu lehen taldearekin. Pozik dago izan dituen aukerekin, baina ez du lehen taldera iristeko presarik. Reala dagoen tokitik aterako dela ziur dago; hala aitortu digu, derbiaren atarian, Usurbilgo futbolari gazteak.

NOAUA! Beste taldekide batzuen lesioak medio, lehen taldearekin hainbat jardunalditan jokatzeko aukera izan duzu. Maila pertsonalean, pozik izango zara, ezta?

Imanol Agirretxe. Oso gustura nago. Azken denboraldietan hor goran ibili naiz, lehen taldean muturra sartzen. Aurten, lesioak medio, gehiago ibili naiz eta alde horretatik oso gustura nago. Minutu gutxi horietan dena eman behar da eta ni pozik nago egiten ari naizena-rekin.

N. Real Bko jokalaria izanik ere, lehen taldearekin parte hartzeko aukera izatea pizgarria izango da zuretzat.

I. A. Beti entrenatzen dut lehen taldearekin. Alde horretatik oso gustura nago, lehen mailako jokalariekin entrenatzea ezberdina da eta asko ikasten da.

N. Taldeak izan duen bilakaerarekin, ordea, kezkatuta dago zalegoa. Zuek ere sumatuko duzue kezka hori.

I. A. Ni ere realzale naizen aldetik, ulertzekoa da jendea kezkatuta egotea. Zure betiko taldea horrela ikustea ez da gauza polita. Baina aurrera segi behar da, ez dago besterik.

N. Zu baikorra al zara? Taldea zulo-tik aterako dela uste al duzu?

I. A. Bai, bai. Lehen itzulia ez da oso ona izan baina hor gaude; jaitsiera postuetatik ateratzeko aukera asko daude eta nik uste dut aterako garela.

N. Herri mailan, nola bizi duzu hau dena. Jendeak zer esaten dizu kalean?

I. A. Jende askok galdetzen dit. Baina normala da, Usurbil bezalako herri bate-

an jende asko dago Realekoa eta asko dira gutaz interesatzen direnak. "Zer moduz partida?" edo "nolakoa da Ronaldhino?" eta horrelakoak galdetzen dizkirate.

N. Gaizki esaka ez zaizu inor hurbildu.

